

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Luis Mendizabal Yarzabal

*Donostia,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea



Biografia



Herrerako Peruenezar baserrian jaioa, Altza herriko zati zen garaian. Umetatik baserriko lanetan jardundakoa, besteak beste esnea partitzen. Bost senide ziren. Ama Errenteriakoa zuten, Oiartzunen bizitua, eta aita hernaniarra. Sagardoa egiten zuten etxean. Peruene Berrira joan zen eskolara, Ebarista maistrarengana, eta gero Trintxerpeko eskola publikora. Sagueseko hiltegian lanean ibili ostean, Hondarribiko harategi batean egon zen. Gero, harategia jarri zuen Herreran. Etxera ezkondu zen, Peruenezar baserrira. [Patxi](#) anaiarekin batera egin diogu elkarrizketa.

Zintak

DON-090

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-03-04
- **Iraupena:** 141 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Herrera nolakoa zen lehen

- **Erref:** DON-090/002
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:01:18. **Bukatu:** 00:02:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Peruenezar baserrian jaio ziren, Altza herria zen garaian. Eliza, fraideen eskola eta San Luis plaza etxe alboan zituzten. Inguruan zituzten etxeak aipatzen ditu Jose Luisek. Trenbidearen beste aldea txindurri sagardotegia zegoen. 1947. urte inguruan 'Ramon Vizcaino' lantegia jarri zuten sagardotegiaren bazterrean.

2. Euskaraz eginez gero zigorra

- **Erref:** DON-090/004
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:05:16. **Bukatu:** 00:06:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Eskolan euskaraz eginez gero, zigorra jasotzen zuten: belauniko arto edo babarrun gainean jartzea, erregelarekin hatz puntetan jotzea... Maisu erdaldunak Euskal Herri guztira etorri ziren.

3. Hondartzara alokatutako bainujantziarekin

- **Erref:** DON-090/005
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:06:41. **Bukatu:** 00:09:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Edozer gauzetan jolasten ziren umetan. Ez zuten baloirik eta paperarekin egiten zituzten baloiak. Bizikleta bakarra zegoen auzoan. Hondartzara joateko bertako kabinetan alokatzen zituzten bainujantziak, etxean ez zuten bainujantzirik-eta. Herreratik tranbia pasatzen zen Errenteriarantz eta han joaten ziren hondartzara. Kamisetarekin eta bainujantzitan bainatu behar zen. Aguazilak ibiltzen ziren zaintzen.

4. Umetatik lanean; aingiratan errekan

- **Erref:** DON-090/007
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:09:46. **Bukatu:** 00:11:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Ume-umetatik hasi ziren baserriko lanetan: aitzurrarekin, behiak jezten, segan... Auzotik erreka pasatzen zen aingirak harrapatzen zituzten sardexkarekin. Erreka garbia zen.

5. Tiragomarekin txoritan

- **Erref:** DON-090/009
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:12:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Tiragomarekin txoritan egiten zuten. harrapatutakoarekin amak kazuela ederra prestatzen zuen. Harrapatzen zuten guztia jaten zuten: zozo, birigarro... Lehen baso askoz goen inguruan eta ehizan asko zegoen.

6. Kilker bila

- **Erref:** DON-090/011
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:13:42. **Bukatu:** 00:14:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Kilker asko zegoen lehen. Kilkerak nola harrapatzen zituzten. Pototan sartzen zituzten etxean eta ardo puska bat jartzen zien kantatzeko. Pertsonak ere ogiarekin eta ardoarekin errazago kantatzen duela dio.

7. 13 senitarteko etxean gose garaian

- **Erref:** DON-090/012
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:14:41. **Bukatu:** 00:18:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Bost senideak, gurasoak, morroia, izebak, amonak, apopiloren bat... bizi ziren etxean, 13 bat. Gose urtetan ere denak bizi ziren elkarrekin eta jana gutxi zuten. Errenteriako gailera-fabrikako gailetak saltzeko ardura zuen emakume baten etxera joaten zen beraien izeba gailetak eskatzera, horrelakorik ere ez zuten-eta. Izeba hori beraien aitonaren arreba bat zen.

8. "Mendaro Txirristaka" bertso-jartzailea

- **Erref:** DON-090/018
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:25:06. **Bukatu:** 00:27:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

"Mendaro Txirristaka" bertso-jartzailea Trintxerpera joaten zen arrantzako kableak jasotzen eta topoan (trenean) Herrerara joaten zen. Beraien sagardotegira joaten zen sardina zaharrak jatera. Begi bat falta zuen eta auto batek jo zuen. Gipuzkoa guztian zehar ibiltzen zen eta Ameriketara ere joandakoa zen.

9. "Mendaro Txirristaka"ren erdarazko bertsoa I

- **Erref:** DON-090/021
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:29:41. **Bukatu:** 00:30:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

"Mendaro Txirristaka" bertso-jartzaileak erdarazko bertsoak ere abesten zituen. Jose Luisek horietako bat kantatzen du.

10. "Mendaro Txirristaka"ren erdarazko bertsoa II

- **Erref:** DON-090/023
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:30:27. **Bukatu:** 00:31:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

"Mendaro Txirristaka" bertso-jartzaileak erdarazko bertsoak ere abesten zituen. Jose Luisek horietako bat kantatzen du. "Mendaro Txirristaka" fenomeno hutsa zela dio, baina jendeak ez duela askorik aipatzen.

11. 'Txirrita' eta 'Pello Errota' sagardotegian

- **Erref:** DON-090/025
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:31:33. **Bukatu:** 00:32:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

'Txirrita' sagardotegira joan eta 'Pello Errota'K orduan kantatu zion bertsoa eta 'Txirrita'ren erantzuna kantatzen du Jose Luisek.

12. 'Txirrita'k apaizari botatako bertsoa

- **Erref:** DON-090/026
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:32:49. **Bukatu:** 00:34:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

'Txirrita' parrandazalea omen zen eta Altzan bizi zen. Behin apaizak mutilzaharreatatik sermoian esandakoen ostean botatako bertsoa kantatzen du.

13. 'Txirrita'k Errezilgo udaletxean botatako bertsoa

- **Erref:** DON-090/028
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:35:07. **Bukatu:** 00:36:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

<p>Txirrita Errezilgo San Martingo festetara abesten joan zenekoa. Udaletxera kobratzera joan eta hangoak bertsoa botatzeko esan zion Txirritari eta honek horrela erantzun zion, bertsotan, noski.</p>

14. Tabernetan koadrilek beti bukatzen zuten kantari

- **Erref:** DON-090/030
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:37:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

Tabernetan koadrilek beti bukatzen zuten kantari. Erdarazko abestiak ziren asko. Guardia Zibilak azaltzen zirenean denak joan behar izaten zuten etxera.

15. Tranbiara saltatu kokoak hartzeko

- **Erref:** DON-090/033
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:42:08. **Bukatu:** 00:43:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Pasaiaiko portutik merkantzia zekarren tranbia pasatzen zen auzotik. Gose garaian, koko asko zegoen zakuetan eta mutikoak bagoi gainetan jartzen ziren koko lehorrak jateko. Kokoak xaboi-lantegira eramaten zuten xaboia egiteko. Errazionamenduko ogia txarra eta urria zen.

16. Langile etorkinen etorrera

- **Erref:** DON-090/037
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:47:40. **Bukatu:** 00:50:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Hemen gose asko egon arren, Espainia guztitik emigrazioa hasi zen.

Espainiatik ehundaka pertsona heldu ziren. Etxe berean hiru edo lau familia pilatzen ziren. Bertako lantegietan, Pasaiake Luzuriaga fundizioan, ontzioletan eta beste tailer askotan, horietako andana hasi ziren lanean.

17. Goierritik etorritako langileek etxean laguntzen zien

- **Erref:** DON-090/047
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:02:42. **Bukatu:** 01:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ekonomia eta industria » Boom industrialia

Laburpena:

Umeak baserrian ere aritzen ziren lanean. Auzoan bizi ziren asko baserrietatik etorritakoak ziren eta beraien era ere joaten ziren lanera, laguntzera, kobratu gabe. Goierriko jende asko hurbildu zen inguru honetara.

18. "Sábado inglés" eta lan-baldintzak

- **Erref:** DON-090/050
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:09:28. **Bukatu:** 01:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

"Sábado inglés" noiz hasi zen, larunbat arratsaldea jai egiten. Hala ere, larunbatez zortzi orduko laneguna zuten. Igandea baino ez zen jai eta urtean astebeteko oporraldia baino ez zuten. Askok ez zuten jai hartzen eta lanera joaten ziren diru beharra zutelako.

19. Herrerako zubia beraien etxe ondoan, argazki zaharrean

- **Erref:** DON-090/052
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:11:08. **Bukatu:** 01:12:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Irudi zahar bat du Jose Luisek eskuetan. Bertan Herrerako zubia ikusten da eta haren azpian ageri da beraien jaiotetxea, Peruenezar. Trena zubi hartatik pasatzen zen. 21 metroko altuera du.

20. Ikatzezko trenetako merkantzia

- **Erref:** DON-090/053
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:12:03. **Bukatu:** 01:13:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Pasaiaiko portuko kargak beraien etxe ondoan eraiki zuten tren zubitik pasatzen ziren. Txokolaterak, ikatzezko makinak, ziren denak. Instalazio elektrikoa bazegoen, baina baporezko makinak erabiltzen zituzten.

21. Guardia Zibila tren-bidaiariak miatzen

- **Erref:** DON-090/054
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:13:43. **Bukatu:** 01:16:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Estraperloko jeneroa trenean ere garraiatzen zuten. Eta trena beraien etxe ondoko zubitik pasatzen zenean, askotan ogi-zakuak-eta botatzen zituzten han, Pasaian Guardia Zibila egonez gero zain. Gero botatakoaren bila etortzen ziren. Guardia zibilek trenetako bidaiariak zeramatena miatzea normala zen. Behin beraien aitari 15 kilo babarrun kendu zizkieten.

22. Peruenezar uholdeek harrapatuta

- **Erref:** DON-090/056
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 01:17:47. **Bukatu:** 01:21:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

1932ko uholdeek beraien etxea harrapatu zuteneko argazkiak erakusten dizkigute. Hiru lagun ito ziren urte hartan. Euria egiten zuenean, askotan gertatzen ziren uholdeak. Elkarrizketa aurreko azkenak 1992. urtean izan ziren, ordura arteko haundienak, Jose Luisi ganadua harrapatu zion. Plazako etxeak ere ur azpian gelditzen ziren. Itsasoaren alturan dago auzoa. 1992an ganadua igerian ibili zen plazan zehar.

23. Tranbia zaldiekin funtzionatzen zuen

- **Erref:** DON-090/060
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:23:28. **Bukatu:** 01:24:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

Lehendabiziko tranbiak zaldiekin funtzionatzen zuen. Erreteriatik etortzen zen tranbia hori. Argazki zahar batean erakusten digu hori.

24. Madrildar udatiarren harakin

- **Erref:** DON-090/065
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:29:44. **Bukatu:** 01:31:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Hondarribian harakin lanetan zebilela, Muñoz Grandes Francoren ministroa ere bere bezeroa zen. Familiako sukaldariak astebete lehenago egiten zion enkargua. Senar-emazteak Miarritzeko bingoa joaten ziren, espainiar estatutan debekatuta baitzeuden horrelako joko-etxeak.

25. Lehen haragi asko saltzen zen

- **Erref:** DON-090/067
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:32:35. **Bukatu:** 01:34:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Lehen haragi asko saltzen zen harategian, nahiz eta gaur egun baino aukera gutxiago izan. Baserrietan hazten zen txerria saltzen zen. Oilaskoa 1960. hamarkadan hasi zen saltzen. Dena kiloka saltzen zen eta emakume bakoitzak pare bat kilo erosten zituen. Haragia familia denetan jaten zen.

26. Zaldi-harategiak

- **Erref:** DON-090/069
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:36:36. **Bukatu:** 01:38:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Jose Luis 17 urterekin Donostiako Saguesko hiltegira joan zen lanera. Galiziatik ganadu asko ekartzen zuten trenetaz. Zaldi asko zegoen eta inguruetako herri gehienetan zeuden zaldi-harategiak.

27. Francok jateko haragia bere eskoltek propio hildako ganadutik

- **Erref:** DON-090/071

- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:38:45. **Bukatu:** 01:40:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Franco Donostiara etorri behar zenean, berak jateko ganadua mairuek hiltzen zuten. Francoren eskolta gehienak mairuak ziren. Mairuek bizi-bizirik zeudela moztzen zien lepoa txekorrei; eta animalia odolustuen zen bitartean mairuak Mecara begira errezatzen zuten. Jose Luisek-eta ez zituzten horrela hiltzen, asko sufritzen baitu animaliak.

28. Ganadua nola hil eta garbitu

- **Erref:** DON-090/073
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:40:37. **Bukatu:** 01:42:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Jose Luis 17 urterekin Donostiako Saguesko hiltegira joan zen lanera. Ganadua nola hiltzen zuten azaltzen du, sufritu gabe. Sastakaia ("puntilla") erabiltzen zen, labana motz bat. Odolusteko eztarritik irekitzen zien. Tripak emakumeek garbitzen zituzten eskuz. Egunero ehundik gora hiltzen ziren.

29. Zezen-plazara zezenak "puntillatzera"

- **Erref:** DON-090/074
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:42:48. **Bukatu:** 01:44:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Jose Luis Saguesko hiltegian lanean zebilela, askotan joan zen zezen-plazara sastakaiarekin zezena hiltzera. Sastakaia ("puntilla") ganadua hiltzeko erabiltzen zen labana motz bat da. Zezena ondo "puntillatu"z gero, 500 pezeta jasotzen zituen. Jende dotorea joaten zen zezen-plazara: trajearekin eta dotore jantzitakoak, purua erretzen zutenak... Franco ere sarri joaten zen. Francoren sukaldaria Alde Zaharrekoa zen.</p>

30. Farolariak

- **Erref:** DON-090/076
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:45:52. **Bukatu:** 01:47:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Farolariak. Farolak gasezkoak ziren eta farolak pizteaz eta itzaltzeaz arduratzen ziren. Jose Luisek dio trenbidean ere aritzen ziren farolariak.

31. Tabernara berriak irratian entzuteko

- **Erref:** DON-090/079
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:51:50. **Bukatu:** 01:53:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Irratia taberna batean zegoen. II. Mundu Gerrari buruzko berriak entzuten tabernan batzen ziren berriak entzuteko. Ardo porroia edan eta kakahuesak jan, hori zen orduko tabernetako plana.

32. Gerratik bueltan etxerik eta lanik gabekoak

- **Erref:** DON-090/083
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 02:00:01. **Bukatu:** 02:01:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Beraien familian ez zen inor joan borrokara Espainiako Gerra Zibilean. Asko etxe barik gelditu ziren, gerratik bueltan etxea hutsik aurkitu baitzuten. Beste askok lana ere galdu zuten, nagusiak ez baitzuen langilea berriro hartzeko derrigortasunik. Abertzale askok, "gorriek", etxebizitza lortzeko arazoak ere izan zituzten.

33. Ordu extrak ez sartzearen kartzelara

- **Erref:** DON-090/086
- **Iraupena:** 0:05:33. **Hasi:** 02:04:18. **Bukatu:** 02:09:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Ondarretan zegoen kartzela. Patxik ere ezagutu zuen kartzela. 18 urte zituela Pasaia portura joan zen lanera. Ordu extrak ez sartzearen lanetik bota eta kartzelan sartu zuten Patxi. Hamar bat egunez egon ziren 29 lagun. Ziega bakoitzean zazpi lagun zeuden. Patxi denen artean gazteena zen, berez 21 urtetik beherakoak ez baitzituzten onartzen. Ziega barruko baldintzak.

34. 'Bordazar'ren "Alarguna!" bertso sorta

- **Erref:** DON-090/089
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 02:16:56. **Bukatu:** 02:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:

Juan Kruz Zapiain 'Bordazar' bertsolariaren "Alarguna!" bertso sorta kantatzen du.

Transkripzioa

"Kantak jarriko ditut hartzen badet betik
neri gertatu zaidan motibuagatik,
ez det esango egin ez zirala faltik,
biyotza konsolatu ezin penetatik
iya atera nitzan nere onetatik.

Nere sentimentuak bihar ditut esan,
suerte txarreko mundu hontan izan,
gripek harrapatuta emaztia hil zan;
errezatutzen diyot ahal dana elizan,
bederatzi semekin alargundu nitzan.

Semerikan zaharrenak ditu hamalau urte,
ta gaztienak berriz hiru hillabete,
hoiek gobernatutzen lana badaukate,
nik emaztia hilla ez det gutxi kalte,
prueba egin dutenak sinistuko dute.

Goguak ematen dit adieraztia
nola gelditu zaidan famili gaztia,
nik esan dituanak gezurrak ez dia,
gripe harrapatuta hil zan emaztia,
oraingo bersu hoiek pranko penaz dira.

Jendiari emango diyot aditzia,
orain probatuko det zer dan bizitzia,
kasikan hobe luke kristaubak hiltzia,
ez ume txikiyakin hola gelditzia,
ai gauza tristia da alargundutzia.

Zenbait gizon gazte ta andre familiko
hau buruan dutela ez dira ibilliko,
hola bakartutzia iñork ez du nahiko,
gu biyok bizitzia ez zan konbeniko,
bestela Jaungoikuak ez ziñuen hilko.

Jaungoikuak badauka guziyen kontua
bederatzi semekin nitzan sonatua,
deskalabru honekin nago penatua,
familiya badaukat pranko banatua,
emaztiaren faltan desordenatua.

Manifestatzen ditut daukazkidan penak
baiña ez ditut esaten pasadizu danak,
ezkerrak dauzkidala ayudante onak,
holako ume txikiyak badituzte lanak,
amarik gabetandik hazi biutenak.”

Aber, bi falta dia.

“Ez izan gezurra dan errezelorian,
begitik ezin kendu negar malkorikan,
ez daukat fiestik eta dibersiyorikan,
kasik gabian ez det egiten lorikan,
iñundikan ez daukat konsuelorikan.

Esango det jendiak nahi baditu aditu,
beratzi seme nola zaizkidan gelditu.
lehengo bizi moduan nahi nuke segitu,
esperantzarik ez det oraindikan galdu
Jaungoikuak haren falta ordainduko ahal du.”

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com